

zakilixut

© Olariagak



Asier Iturriagaetxebarria | BILBO

ATZEKOZ AURRERA



Bihotz oneko txikiteroen jaia

Urtean zehar batutako dirua gizarte laguntzarako elkarteei eman diete aurten ere Bilboko txikiteroek

Egunero-egunero Bilboko Zazpikaleetan ibiltzen den pertsona askorentzat ukitu ezineko gauza bi daude: Begoñako Ama eta lagunekin goizean eta arratsaldean egin ohi duten solasaldia; jakina, tabernan eta ardo ona eda-

nez. Bilbotarren bihotzean hain leku berezia duten ikur bi horiek uztartu zituzten atzo. Izan ere, Begoña Amaren eguna izateaz gainera, txikiteroek euren jai handia ospatu zuten.

1964. urtean hasi ziren Bilboko txikiteroak euren eguna os-

patzen. Marino Montero Txikiteroen Eguneko antolatzailetako batek adierazi zuenez, Epifanio Mezo izan zen lehenengo urte haietan jaiaren bultzatzaile nagusia. «50eko eta 60ko hamarkadetan tabernetan ipintzen ziren itsulapikoetan dago

jaiaren jatorria. Sasoi hartan, Bilboko umezurtezi ematen zitzaizkien urtean zehar txikiteroek itsulapikoetan utzitako txakur txikiak». Gaur egun, ordea, txikiteroak garai modernoetara egokitu dira, eta aurten batutako dirua —lehenengo aldiz, eurotan— DYA, Behartsuen Senidetxoak eta Nuevo Futuro izeneko elkarteei eman diete.

Gaur ez dago itsulapikorik tabernetan, eta geratzen den bakarra Pelota eta Santa Maria kaleetako bidegurutzean dago, hormari itsatsita. Gainera, horixe da Begoñako katedrala ikusteko aukera eskaintzen duen Zazpikaleetako leku bakarra. Itsulapiko bakarra izateko ez dute diru gutxi batu: 3.607 euro.

Lore eskaintza Pelota kalean

Goizeko 11:00etan hasi zuten txikiteroek euren eguna. Pelota kalean dagoen Bolsa auzoetxeko hormari itsatsita dago Begoñako Amaren irudia, eta eskailera baten laguntzarekin, bertara igo zituzten txikiteroek eta inguruko merkatariek ekarritako lore sortak. Gero, Jose Lejarraga Petiso-k salbea abestu zion Ama Birjinari. Guztira,



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS
Txikiteroek atzo gorazarre egin zioten Begoñako Amari, urtero legez.

50 lagun inguru egon ziren ekitaldia ikusten, eta ez ziren hamar izango txikitero uniforme soinean zeramatenak. Kolkoan zapia zuela eta txapela buru gainean, emakume bakarra zegoen. «Ni ez naiz inoiz txikiteroa izan, baina nire senarra zena bai. Ni ere ez nintzen etxean geratzekoa, eta elkarrekin joaten ginen egunero-egunero», azaldu zigun emakumeak.

Urtero bezala, arratsaldean lagun gehiago batu ziren Bolsa auzoetxearen aurrean. Agintari politikoen eta abesbatzen eta otxoteen laguntzarekin, berriro salbea abestu zioten Begoñako Amari, baina ez edozein salbe: Txikiteroen Salbea, hain zuzen.

